# 10 EFÍMER
## “Lo Monstre” (Katalunia/Cataluña)

**FLORIDAKO PARKEA**
**PARQUE DE LA FLORIDA**

LARUNBATA/SÁBADO
**18:00**
IGANDEA/DOMINGO
**11:30**
IRAUPENA/DURACIÓN: **180’**

Gure tradizioan, eta umeentzako ipuinetako iruditerian, ohikoak izan dira beti herri osoak izutzen zituzten herensugeen eta munstroen istorioak. Baina bestela ere ikus ditzakegu, arnasa hartzen, sentitzen edo ihes egiten duten izaki sentikor gisa... Lo Monstre herensuge handi bat da –2’50 metro garai eta 4 metro luze–, lo egiten, jaten, paseatzen, beldurtzen eta ongi pasatzen dakiena. Lo Monstre ikusnahia da, beldurtia, haserrekorra batzuetan. Bila ezazu haren gordelekua, Florida parkean. Ikuskizunaren iraupena: 3 ordu. Lehenengo orduan, herensugea lotan dago, jendearen aurrean; bigarrenean, esnatu eta parkean zehar ibiliko da; hirugarrena, berriro lokartuko da, ikusleen begiradaren pean. Familia osoak gozatzeko.





Dentro de nuestra tradición y del imaginario de los cuentos infantiles siempre han sido habituales las historias de dragones y monstruos que aterrorizan a poblaciones enteras. Pero también podemos verlos como a seres sensibles que respiran, que sienten, que se escapan o que huyen... Lo Monstre es un gran dragón de 2'50 metros de alto y 4 metros de largo que duerme, come, pasea, se asusta y disfruta. Lo Monstre es curioso, miedoso, también se enfada. Busca su guarida en el parque de la Florida. Duración del espectáculo: 3 horas. La primera de ellas, el dragón duerme a la vista del público; la segunda hora se despierta y pasea por el parque; y la tercera, vuelve a quedarse dormido a la vista de los espectadores. Para el disfrute de toda la familia.

# 11 Carpe Diem / Marie-Anne Michel

## "Sieste verticale" (Frantzia/Francia)

**ETXANOBETARREN ETXEKO LORATEGIA**
**JARDIN DE ETXANOBE**

LARUNBATA/SÁBADO

**18:00**
**21:00**

IRAUPENA/DURACIÓN: **12'**

Denetik gehiegi dagoen lekuan, zerbait falta da. Batez ere airea, espazioa, isiltasuna falta dira, mugagabetasuna eta infinitua... Hutsa falta da, dena barruan har dezakeen hutsa... Oroz gabetzea, bakarrik funtsezkoarekin, muinarekin, odolarekin, erdigunearekin, bizkarrezurrarekin... geratzeko. Metalezko enigmatik tutu bat besterik ez da geratzen, bakarra, lurra eta zerua elkarrekin lotzen... Zutoin gaineko dantza bertikaleko ikuskizun barnerakoi hori Carpe Diem konpainia frantziarrak sortu du eta Marie-Anne Michelek interpretatzen. Hortxe... zeruaren eta lurraren artean egotearen atsegina. Isiltasunaz gozatzeko.



Ahí donde hay demasiado de todo, falta algo. Sobre todo falta aire, espacio, silencio, falta inmensidad e infinito... Falta el vacío, este vacío que lo contiene todo... Despojarse de todo para quedarse únicamente con lo esencial, el núcleo duro, la savia, el centro... la columna vertebral... Del enigma de metal no queda más que un tubo, solo, uniendo la tierra con el cielo... Espectáculo intimista de danza vertical sobre mástil creado por la compañía francesa Carpe Diem e interpretado por Marie-Anne Michel. El gozo de estar ahí... entre cielo y tierra. Para disfrutar del silencio.

# 12 Motionhouse
## "Underground" (Erresuma Batua/Reino Unido)

Bizitza metroaren ahotik doa ihesi. Nazioarteko jaialdi nagusietan parte hartu duen konpainia britainiar gazte horren ohiko lanen ildotik, lau dantzarik antzezten dute Underground, hodi-formako egitura mugikor batean barruan; dantza fisiko liluragarria, irudi hunkigarriak eta aireko elkarketa harrigarriak baliatuz trenean bidaiatzeak sortutako errealitate berria aztertzen dute. Bidaiariek bat egiten dute ustekabeko aliantza batean, artista batzuek grafitiak margotzen dituzten bitartean, dantza xarmagarri, zirraragarri eta gertukoa sortzen, soinu banda zoragarri baten erritmoan dantzatzeko gogoa kutsatzen duena.

**LOMA JENERALAREN PLAZA**
**PLAZA GENERAL LOMA**

LARUNBATA/SÁBADO

**18:30**
**20:30**

IGANDEA/DOMINGO

**13:00**
**19:30**

IRAUPENA/DURACIÓN: **25'**

La vida se va por la boca del metro. En la línea de los trabajos habituales de esta joven compañía británica que ha participado en los principales festivales internacionales, Underground está representada por cuatro personas dentro de una estructura tubular movible que exploran la nueva realidad de viajar en tren a través de una maravillosa danza física, imágenes conmovedoras y sorprendentes encuentros en el aire. Los viajeros coinciden en una insólita alianza a medida que artistas pintan grafittis creando una danza cautivadora, emocionante y cercana que contagia las ganas de bailar a ritmo de una apasionante banda sonora.



# 13 Acolytes
## "Le Tennis" (Frantzia/Francia)

**ESPAINIA PLAZA**
**PLAZA DE ESPAÑA**

LARUNBATA/SÁBADO
**18:30**

IGANDEA/DOMINGO
**12:00**

IRAUPENA/DURACIÓN: **20'**

Bi atleta kitzikatzaile eta tenis epaile ameslari bat, aparteko partida batean. Espezialitateko txapeldunak adiskidetasunezko partida jokatzen ari dira, Zirku Teniseko Nazioarteko Federazioak antolaturik. Hiru malabarista frantziar handi horien emanaldi benetan berezia, zeinek hainbat sari jaso baitute mimoa, akrobazia eta txantxak atsedenik gabe uztartzen dituen ikuskizun horrengatik. Annie Frattellini saria eta epaimahaiaren Sari Berezia Parisko Munduko Zirku Jaialdian. Jende ororentzat.



Dos atletas electrizantes y un árbitro de tenis fantasioso en un encuentro excepcional. Los campeones de la especialidad se enfrentan en un combate amistoso organizado por la Federación Internacional de Tenis de Circo. Una actuación muy peculiar de estos 3 grandes malabaristas franceses que han recibido diferentes galardones por este condensado espectáculo de mimo, acrobacias y gags sin descanso. Premio Annie Frattellini y Premio especial del jurado del Festival Mundial de Circo de París. Para todos los públicos.

# 14 Tr'Espace
## "RencontreD (a diabolo juggling experience)" (Suitza/Suiza)

Zirku berriko ikuskizuna, diaboloa darabilten bi malabaristak eta kontrabaxu jotzaile batek eskainia. RencontreD lanak hitzik gabeko istorio bat kontatzen du, irudi plastikoak eta girotze ederrak baliatuz. Bilatzea eta aurkitzea, besteekiko desafio eta gorteiatze jarrera, borroka, adiskidetzea eta ustekabea ditu hizpide. Maitasuna, azken batean. RencontreD lanarekin 120 emanalditik gora egin dute, hainbat herrialdetan (Belgika, Alemania, Bretaina Handia, Frantzia, Hungaria, Japonia, Polonia, Espainia, Hego Korea eta Suitza) eta zenbait sari ere lortu dituzte.

Espectáculo de nuevo circo para dos malabaristas con diábolo y un contrabajista. RencontreD cuenta una historia sin palabras, a través de plásticas imágenes y bellos ambientes. Habla de buscar y encontrar, de esa actitud de desafío y de cortejo hacia los demás, de la lucha, la reconciliación y la sorpresa. Habla, en definitiva, del amor. RencontreD lleva más de 120 representaciones en gira por Bélgica, Alemania, Gran Bretaña, Francia, Hungría, Japón, Polonia, España, Corea del Sur y Suiza, siendo premiado en diferentes ocasiones.



Argazkia/fotografía: Marta Vidanes

**ESKORIATZA ESKIBEL JAUREGIAREN PLAZA**
**PLAZA DEL PALACIO ESCORIAZA ESQUIVEL**

LARUNBATA/SÁBADO

**19:00**
**22:00**

IGANDEA/DOMINGO

**13:30**
**19:30**

IRAUPENA/DURACIÓN: **25'**

# 15 BASH STREET THEATRE
## "The station" (Erresuma Batua/Reino Unido)

**ARKA PLAZA**
**PLAZA DEL ARCA**

LARUNBATA/SÁBADO

**19:30**

IGANDEA/DOMINGO

**13:00**

IRAUPENA/DURACIÓN: **60'**

Ekintza tren geltoki baten inguruan gertatzen da, lurrunezko lokomotoren garaian. Ekialdeko Europa iradokitzen duen tren geltoki horretan itxuraz egun arrunta da, baina gauzak zertxobait nahasten hasten dira batetik kontzertu handi bat ematera datorren musikari talde bat eta bestetik artelan batzuen bila dabiltzan lapur batzuk agertzen direnean. Ikuskizunak antzerki fisikoa eta zinema mututik ateratako sekuentziak bateratzen ditu, zuzenean jotako musikarekin. Ingalaterrako konpainia hau 1991n sortu zen eta orain arte 18 lan taxutu ditu, Erresuma Batuko jaialdi askotan zein Europa osoan ere ikusi direnak. Tárregako Firan Kaleko Ikuskizun Onenaren Saria lortu zuen. Begira ezazu atzera eta goza ezazu betiko antzerkiaz.



La acción se sitúa en las inmediaciones de una estación en la época de las locomotoras de vapor. Un día aparentemente normal en esta estación de trenes con reminiscencias de la Europa del Este se empieza a complicar cuando aparece un grupo de músicos que llegan para ofrecer un gran concierto y una banda de ladrones que buscan unas obras de arte. El espectáculo une el teatro físico y las secuencias al estilo del cine mudo, con música interpretada en directo. Fundada en 1991, esta compañía inglesa ha creado 18 producciones que se han representado en festivales de todo el Reino Unido y el resto de Europa. Premio al Mejor Espectáculo de Calle en la Fira Tárrega.





# 16 Studio Funky the Group
## "Strongbox" (Katalunia/Cataluña)

**ESPAINIA PLAZA**
**PLAZA DE ESPAÑA**

LARUNBATA/SÁBADO
**19:30**
IGANDEA/DOMINGO
**13:00**
IRAUPENA/DURACIÓN: **30'**

Hip hopa eta breakdancea praktikatzen duten 18 dantzarik osatzen dute Strongbox kaleko koreografia kementsua; berdintasuna eta ezberdintasuna, gizarte hierarkiak eta ziur aski pertsona orok komunean dugun nahia (zorionaren bilaketa) hartzen ditu gaitzat. Bartzelonako konpainia 2005ean sortu zen Studio X Funky Bea Simón hip hop eskolan, dantzari eta koreografo ospetsu horren zuzendaritzapean; Bea Simónek AEBetan ikasi eta maila handiko artistekin egin du lan, hala nola Robbie Williams eta Kylie Minoguerekin. KALDeARTEren 2008ko edizioan harrera ona izan zuten Cart lanarekin, eta orain berriro datoz Gasteizera, Tárregako Firaren azken edizioan ere arrakasta handia izan ondoren. Kale erdian dantzaz gozatzeko.



Integrada por 18 bailarines y bailarinas que practican el hip hop y el breakdance, Strongbox es una coreografía enérgica de calle que habla sobre la igualdad y la diferencia, sobre las jerarquías sociales y sobre una aspiración que probablemente tenemos en común todas las personas: la búsqueda de la felicidad. Esta compañía de Barcelona se formó en 2005 a partir de la escuela de hip hop Studio X Funky Bea Simón, bajo la batuta de esta afamada bailarina y coreógrafa formada en los EEUU y que ha trabajado con artistas de la talla de Robbie Williams o Kylie Minogue Triunfaron en la edición de KALDeARTE de 2008 con Cart y ahora vuelven a Vitoria-Gasteiz tras su éxito cosechado en la última edición de la Fira Tárrega. Para disfrutar del baile en plena calle.

# 17 Banc Public
## "Banc public" (Frantzia/Francia)

Banc Public taldeak berrelkartze bat irudikatzen du, dantza, malabareak eta akrobazia elkarren artean bilbatuz. Leku zehaztugabe batean, plaza, parke edo kale batean, eserleku batek berrelkartzeko aitzakia ematen du. Gizon bat eta emakume bat bertan esertzen dira; ez dute elkar ezagutzen, baina nahi gabe elkarri begiratzen diote. Eta jolasa hasten da... Solasa sortzen... Lekuak mugatuak dira.

Banc Public teje un reencuentro donde se confrontan y se entremezclan la danza, el malabar y la acrobacia. En un lugar indefinido, una plaza, un parque, una calle... un banco llama a un reencuentro. Un hombre y una mujer se instalan, no se conocen, pero no pueden evitar volverse el uno hacia el otro. Y el juego comienza... Un diálogo empieza... Aforo limitado.

**URAREN LORATEGI SEKRETUA (FLORIDAKO IBILBIDEA)**
**JARDIN SECRETO DEL AGUA (PASEO DE LA FLORIDA)**

LARUNBATA/SÁBADO
**20:30**

IGANDEA/DOMINGO
**12:00**

IRAUPENA/DURACIÓN: **20'**



Argazkia/fotografía: Philippe Schreurs

# 18 CONSERVATORIO MUNICIPAL DE DANZA "JOSÉ URUÑUELA" CONSERVATORIO DE MÚSICA "JESÚS GURIDI"

**ESPAINIA PLAZA**
**PLAZA DE ESPAÑA**

LARUNBATA/SÁBADO

**22:00**
**22:30**
**23:00**

IRAUPENA/DURACIÓN: **10'**

Dantza, musika eta kantuz osatutako kaleko ikuskizun handia, zeinean Gasteizko 110 gaztek parte hartzen baitute. "Jesus Guridi" musika kontserbatorioaren 25. urteurrena dela eta, bertako orkestrak eta abesbatzak, "Jose Uruñuela" udal dantza kontserbatorioko dantzarien laguntzarekin, "West Side Story" musikal ospetsuan oinarritutako koreografia bat sortu dute, eta musikal horren eszena ezagunenetako batzuk jokatuko dituzte. Kontserbatorioko orkestrako 50 kideek, abesbatzako 40 kantariekin batera, Leonard Bernsteinen gai ezagunak abestuko dituzte, "America" eta "Tonight", esaterako, eta bitartean, dantza taldea osatzen duten 20 gazteek –Soul Flavas breakdance talde gasteiztarraren, Ortzai antzerki laborategiaren eta SHEEko ikasleen laguntzarekin– hamar Oscar lortu zituen film haren eszenak irudikatuko dituzte. Ekitaldi handi horren bitartez, KALDeARTEk lekua egiten die gure inguruko artista gazteen lanei.



## "West Side Story" (Vitoria-Gasteiz)

VITORIA-GASTEIZKO UDALAK KOPRODUZITUTAKO IKUSKIZUNA

Gran espectáculo de danza, música, y canto en la calle con la participación de 110 jóvenes de Vitoria-Gasteiz. Con motivo del 25 aniversario del Conservatorio de Música "Jesús Guridi", la orquesta y el coro del propio Conservatorio en colaboración con bailarinas y bailarines del Conservatorio Municipal de Danza "José Uruñuela" han creado una coreografía basada en el famoso musical "West Side Story" y del que representan en directo algunas de sus más conocidas escenas. Los 50 componentes de la orquesta del Conservatorio junto a los 40 participantes en el coro interpretarán en directo temas de Leonard Bernstein tan conocidos como "América" o "Tonight", mientras que los 20 jóvenes del cuerpo de baile (en el cual han aportado su colaboración miembros del grupo local de breakdance Soul Flavas, del Laboratorio de Arte Dramático Ortzai y estudiantes de IVEF) recrean las escenas basadas en el filme ganador de 10 oscar. Un gran evento que abre KALDeARTE a las creaciones de jóvenes artistas de nuestro entorno.

ESPECTÁCULO COPRODUCIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ



# 19 El Retrete de Dorian Gray
## "Ne me quitte pas" (Galizia/Galicia)

GOIURI JAUREGIA
PALACIO DE VILLA SUSO

LARUNBATA/SÁBADO
22:00
22:45
23:15
00:15

IRAUPENA/DURACIÓN: **15'**

Istorio txikia da, baina ederra, fokuen argiaren pean puxikak baliatuz eta ilusio handiz antzeztua. El Retrete de Dorian Gray lanak ikusizko antzerkiaren eta objektuen manipulazioaren lurralde malkartsuak arakatu nahi ditu, ikuslea aurrean, alboetan eta baita atzean ere egon daitekeela ahaztu gabe. Ikuskizun bat ikustea ikusmena eta entzumena estimulatzea baino gehiago baita. Magiarik gabe, ez dago ikuskizunik. Jende ororentzako ikuskizuna; leku mugatuak.



Pequeña pero hermosa historia a la luz de los focos recreada con globos y mucha ilusión. El Retrete de Dorian Gray pretende explorar los escabrosos territorios del teatro visual y la manipulación de objetos sin olvidarse de que el espectador está ahí delante, o a los lados, o incluso detrás. Ver un espectáculo es algo más que un estímulo ocular y auditivo. Sin magia, no hay espectáculo. Espectáculo para todos los públicos con aforo limitado.






# 20 Cal y Canto Teatro

## "Éxodos" (Gaztela-Leon/Castilla y León)

**ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA**
**PLAZA DE LA VIRGEN BLANCA**

LARUNBATA/SÁBADO

**23:30**

IRAUPENA/DURACIÓN: **50'**

www.calycantoteatro.com

calycantoteatro.blogspot.com

Exodo: latinezko exodus hitzetik, herri baten edo giza talde baten emigrazioa. Shamerren betidaniko ametsa Itsasartea gurutzatzea zen. Laster, ordea, bidaiaren bakartasunak eta uste ez bezalakoa bihurtzen den Europa batera iristeak agerian uzten dute Itsasartea kezko errezela baino ez dela. Abentura epikoz urri gabiltzan honetan, ahaztu egiten zaigu Europako kostaldera iristen diren milaka pertsonaren atzean balentria handiak ezkutatzen direla, eta haiek beren bizitzak norabide hobean sartzeko beste asmorik ez dutela.

Formatu handiko lan honetan, Cal y Canto konpainia burgostarrak objektuekiko ikuskizuna proposatzen digu, ikusizkoa eta keinuzkoa, eta galdera bat uzten du airean: gu izango ote ginateke horrelako abentura izugarria burutzeko gauza?





Exodo: del latín, exodus, emigración de un pueblo o de una muchedumbre de personas. Shamer siempre había soñado con cruzar el Estrecho. Pronto, la soledad del viaje y la llegada a una Europa que se torna diferente le desvelan esa gran cortina de humo que separa los dos continentes. En unos tiempos escasos de aventuras épicas, se nos olvida que, detrás de miles de personas que llegan a las costas de Europa, se esconden grandes hazañas que buscan simplemente poner un rumbo mejor a sus vidas.

La compañía burgalesa Cal y Canto nos propone en este trabajo de gran formato un espectáculo de objetos, visual y gestual y nos lanza una pregunta al aire: ¿Seríamos nosotros capaces de tamaña aventura?

# 21 SHAKE THAT
## "On the rocks" (Belgika/Bélgica)

**SAN FRANTZISKO KALEA**
**(FARIÑA DENDAREN AURREAN)**
**CALLE SAN FRANCISCO**
**(FRENTE A FARIÑA)**

LARUNBATA/SÁBADO

**00:30**

IRAUPENA/DURACIÓN: **45'**

Bost malabaristak kalearen erdian jarri dute koktel taberna, antzerkia, erritmoa eta larunbat gaueko musika nahasten dituen ikuskizun harrigarrian. Malabareak, umorea, magia, ikusleekiko harremanak eta konbinatu benetan gozoak bikain uztartuz, azken belaunaldiko malabarista hauek azken aldiko ikuskizun aipagarrienetako bat ondu dute. Tabernako barra da agertokia, eta zerbitzariek, ezagutzeko moduko paperak antzeztuz, istorio dibertigarriak kontatzen dituzte. Erritmo bizi-bizia duen lan izugarria, koktel taberna berria jartzeko leku onenetako batean: Kutxi kalearen sarrera.

Cinco malabaristas instalan su bar de cócteles en medio de la calle en un sorprendente espectáculo de teatro, ritmo y música de sábado noche. Mezclando brillantemente los malabares, el humor, la magia, la interacción con el público y unos exquisitos combinados, estos malabaristas de última generación, ofrecen uno de los espectáculos más brillantes de los últimos tiempos. El escenario es la barra de un bar y los camareros, asumiendo roles muy reconocibles, van contando sus divertidas historias. Un grandísimo trabajo con un ritmo trepidante en el mejor de los escenarios posibles para instalar una nueva coctelería: la entrada de la Kutxi.



Argazkia/fotografía: Johannes Vandevoorde

# 22 Bruitquicourt
## "El domador de sonidos" (Frantzia/Francia)

Ongi etorriak Tony Gratofskiren mundu poetiko eta trufagarrira. Lehoi-hezitzaile bitxi baten itxuraren pean, metroko zabalera duen zirku pista txikian egiten du Tonyk bere heziketa ikuskizuna. Baina berak ez du animaliarik hezten, animalien soinuak baizik. Adin guztietarako ikuskizuna, proposamen artistiko originalak eta ezohikoak plazaratzen dituen frantses konpainia horren eskutik, pailazoen teknikan oinarrituz eta askotan ekintza eta esku-hartze antzerkiaren barruan sartuz. Baliabide tekniko oso eraginkor eta sofistikatu baten laguntzarekin, soinu hezitzaile honek txoratu egingo ditu ikusleak, eta soinu eta irudimenez betetako unibertso berezi batera eramango. 5 urtetik gora.

Bienvenido al mundo poético y burlesco de Tony Gratofski. Vestido a la manera de un extravagante domador de leones, Tony realiza su número de doma en su pequeña pista de circo de un metro de anchura. Pero él no doma animales, sino sonidos de animales... Espectáculo para todos los públicos de esta compañía francesa que plantea propuestas artísticas originales y atípicas basadas en el clown e inscritas, a menudo, en el teatro de acción e intervención. Con un apoyo técnico muy eficaz y sofisticado, este domador de sonidos hará las delicias del público y le conducirá a un peculiar universo sonoro e imaginario. A partir de 5 años.

**FALERINA LORATEGIA**
**JARDIN DE FALERINA**

IGANDEA/DOMINGO

**12:00**
**19:00**

IRAUPENA/DURACIÓN: **30'**



# 23 La Furtiva

## "Esféric" (Valentziako Erkidegoa/Comunidad Valenciana)

**LOMA JENERALAREN PLAZA**
**PLAZA GENERAL LOMA**

IGANDEA/DOMINGO

**12:30**
**18:30**

IRAUPENA/DURACIÓN: **30'**

Bat-batean bi bola garden agertzen dira kalean. Bi pertsona dira, nor bere munduan, burbuilak irudikatzen duen bezala. Pertsonaiek elkarren artean erlazionatu nahi dute, baina esferak isolatu egiten ditu. Esferatik irtetea bizitzara jaiotzea da, fase bat atzean uztea beste bati ekiteko. Pertsonaietako bat arazorik gabe irteten da kanpora, baina bestearentzat traumatikoa da, kanpoan gerta daitekeenaren beldur baita. Kaleko ekintza estatikoa, dantza, antzerkia, bat-batekotasuna eta ikusizko inpaktu urbanoa nahasten dituena. Vila-Realeko konpainia gazte honen lehen ekoizpena da, eta 2010eko Max sarietako Ezusteko Ikuskizunaren kategoriako hautagaia izan da.



Dos bolas transparentes irrumpen en la calle. Dos personas viven en su mundo particular representado por una burbuja. Los personajes quieren relacionarse pero la esfera los aísla. La salida de la esfera es el nacimiento a la vida, el abandono de una fase para iniciar otra. Un personaje sale al exterior sin problemas mientras que el otro lo vive de una manera traumática ya que tiene miedo de lo que pueda pasar fuera. Acción estática de calle en la que se confunden la danza, el teatro, la improvisación y el impacto visual urbano. Primera producción de esta joven compañía de Vila-Real que ha sido recientemente nominada al Premio Max 2010 como espectáculo revelación.

# 24 MIMBRE
## “Until now” (Erresuma Batua/Reino Unido)

Leandre Riberak –Leandre-Claire konpainiakoa– zuzendurik, itzulipurdi alai eta oreka harmoniatsuak baliatuz diseinatutako unibertso poetikoa irudikatzen du, dotorezia natural eta txundigarriaz. Ukitu leunez hasten den istorio liriko eta arin hau bidaiez, agurrez eta adiskidetasunaren ahalmen harrigarriaz mintzo da. Mimbre emakume hirukoteak 2008an ere liluratu zituen KALDeARTEko ikusleak The Bridge lanarekin; irudi ahantzezinak sortzen eta istorio ederrak kontatzen dituzte antzerki fisikoz, dantzaz eta goi mailako akrobaziazko jarduerez osatutako hizkera originalaz baliatuz. Jende ororentzat.

Dirigido por Leandre Ribera, de Leandre-Claire, recrea un universo poético diseñado desde alegres volteretas y equilibrios armoniosos con una natural e impresionante elegancia. Lírico y fluido, una historia que se abre con unos toques de suavidad que hablan de viajes, de adioses y de la asombrosa capacidad de la amistad. El trío femenino Mimbre, que ya encandiló a los espectadores de KALDeARTE en 2008 con The Bridge, crea inolvidables imágenes y nos cuenta bellas historias en un show acrobático a través de su original vocabulario de teatro físico, danza y world-class. Para todos los públicos.

**ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA**
**PLAZA DE LA VIRGEN BLANCA**

IGANDEA/DOMINGO

**13:30**
**19:00**

IRAUPENA/DURACIÓN: **35’**



Argazkia/fotografía: Gilmar Ribeiro

# 25 TUTATIS
## "Caballos de Menorca" (Katalunia/Cataluña)

**KALEZ KALE**
(HASIERA: SAN PRUDENTZIO KALEA)
**ITINERANTE**
(COMIENZO C/ SAN PRUDENCIO)

IGANDEA/DOMINGO

**20:00**

IRAUPENA/DURACIÓN: **60'**

Menorcako ospakizunaren ikuspegi pertsonala, zaldiaren animaltasuna irudikatzen eta tradizioaren indarra berreskuratzen duena, antzezpen garaikide batean. Zaldi erraldoi batzuk oinarritzat dituen kaleko ikuskizun ibiltaria, bakana eta originala; lau aktorek manipulatu eta bezatutako txotxongiloen bidez irudikatzen dira zaldiak, eta musikari jarraituz espazio publikoaz jabetu eta ikusleekin elkarreragina sortzen dute. Caballos de Menorca lanarekin Tutatis taldearen asmoa ez da gertaera berregitea, berrinterpretatzea baizik, haren muina mantendu eta proposamen eszenikoa bihurtzea. Kaleko ikuskizun paregabe eta originala, hotz utziko ez zaituena. Jende ororentzat.



# BUKAERA IKUSKIZUNA
# ESPECTÁCULO DE CLAUSURA



Una visión personal de la celebración menorquina que recrea la animalidad primitiva del caballo y recupera el peso de la tradición en una representación contemporánea. Un espectáculo itinerante de calle, único y original, basado en unos caballos gigantes, representados por títeres articulados manipulados y domesticados por cuatro actores que, al compás de la música, ocupan el espacio público e interactúan con los espectadores. Tutatis no pretende con Caballos de Menorca recrear el acontecimiento, sino reinterpretarlo, para mantener la esencia del mismo y convertirlo en una propuesta escénica. Un espectáculo de calle único y original que no te dejará indiferente.

Para todos los públicos.





diseinua: TIKTAK multimedia

LAGUNTZAILEA/COLABORA:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

LES COMMANDOS PERCU.
“Le concert de feu”